



## ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

EBAZPENA, 2019ko urriaren 31koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, literatura-itzulpenetarako diru-laguntzak emateko deialdia argitaratu zuen 2019ko apirilaren 10eko Ebazpenaren babesean aurkezturiko diru-laguntzen eskaerak ebazten dituen.

### AURREKARIAK

1. EHAAn 2018ko maiatzaren 8an argitaratu zen Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren 2019ko apirilaren 10eko Ebazpenak literatura-itzulpenetarako diru-laguntzak emateko modua arautu zuen deialdia eman zuen argitara. Ebazpen horren 2. artikulua diru-zuzkidura finkatu zuen, hogeita hemeretzi mila (39.000) eurokoa.

2.- Ebazpen horretako 10. artikuluan finkatu zen balorazio-batzordearen osaera eta bertako kideak izendatu zituen urriaren 3ko Ebazpenak.

3.- Batzordeko kideak bilduta, eskaera guztiak aztertu zituzten, 2019ko apirilaren 10eko 11. artikuluko 2. puntuan zehaztutako irizpideen arabera.

4.- Balorazio Batzordeak bere ebazpen-proposamena aurkeztu dio Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari.

Hori guztia kontuan izanik, eta Balorazio Batzordeak aurkeztutako ebazpen-proposamena ikusita, eta deia egin zuen Ebazpenaren 12. artikulua egokitu dizkidan betebeharren jardunean, hurrengo hau

### EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Ebazpen honen 1. eranskinean azaltzen diren erakunde/pertsona edo itzulpen-proiektuei bertan zehazturiko kopuruko diru-laguntza ematea.

Bigarrena.- 2. eranskinean azaltzen diren erakunde/pertsonen egindako diru-laguntza eskaera ezestea, bertan zehaztutako arrazoiak direla eta.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan argitaratzea, jakinarazpenaren ondorioetarako, deialdiaren 12. artikuluan 2. atalean dioenarekin bat.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Bere aurka interesatuek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostian, 2019ko urriaren 31n.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,

IRENE LARRAZA AIZPURUA



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1TZQ-WW7R bilagailua erabiltuta, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1TZQ-WW7R en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

### I. ERANSKINA

2019KO APIRILAREN 10EKO EBAZPENAREN DEIALDIAREN ARABERA, DIRU-LAGUNTZA EMATEN ZAIEN ESKATZAILEEN ZERRENDA, ITZULPEN-PROIEKTU ETA EMANDAKO DIRU-KOPURUA.

Espediente-zk.	Eskatzailea	Proiektua	Zenbatekoa
004-ITZ-2019	EDITORIAL TXALAPARTA SLL	ETAren zuzendaritzarekin azken elkarriketa, gaztelaniara	1.102,43 €
005-ITZ-2019	EDITORIAL TXALAPARTA SLL	Nik sinesten dizut, gaztelaniara	828,71 €
006-ITZ-2019	EDITORIAL PLANETA SA	Fakirren ahotsa, gaztelaniara	2.431,41 €
008-ITZ-2019	EREIN SA	Kamisoi zuri zetazkoa, gaztelaniara	213,83 €
009-ITZ-2019	EREIN SA	Klarisa eta K taldea. Arimen parkeko misterioa, gaztelaniara	987,66 €
012-ITZ-2019	KATIXA AGUIRRE MIGUELEZ	Amek ez dute, gaztelaniara	1.919,26 €
013-ITZ-2019	DAR AL RAFIDAIN	Kristalezko begi bat, arabierara	1.426,76 €
015-ITZ-2019	NAMI KANEKO -	Soinujolearen semea, japonierara	7.925,48 €
016-ITZ-2019	DEDALUS LIMITED	Behi euskaldun baten memoriak, ingelesera	2.020,33 €
018-ITZ-2019	POL.LEN EDICIONS	Feminismoa eta politikaren eraldaketak, katalanera	1.005,47 €
020-ITZ-2019	LIBROS DE RUTA EDICIONES SL	Han goitik itsasoa ikusten da, gaztelaniara	1.101,53 €
021-ITZ-2019	MARIYA PETROVA PACHKOVA DIMITROVA	Sekula kontaktu behar ez nizkizun gauzak, bulgarierara	4.970,16 €
022-ITZ-2019	TYPOTEX ELECTRONICAL PUBLISHING HOUSE LTD.	Escrito en negro, hungarierara	2.393,82 €
024-ITZ-2019	PARTIZANSKA KNJIGA	Nevadako egunak, serbierara	5.019,09 €

## 2. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EZETSI ZAIEN ESKATZAILE ETA ITZULPEN-PROIEKTUEN ZERRENDA ETA HORRETARAKO ARRAZOIA.

Espediente-zk.	Eskatzailea	Proiektua	Arrazoa
001-ITZ-2019	JULIO SANTOS GARCIA	La piedra verde, ingelesera	Deialdiko 3.1 artikulua.
002-ITZ-2019	JULIO SANTOS GARCIA	Operación sabueso, portuguesera	Deialdiko 3.1 artikulua.
003-ITZ-2019	JULIO SANTOS GARCIA	La piedra verde, portuguesera	Deialdiko 3.1 artikulua.
007-ITZ-2019	EREIN SA	Ez erran deus, gaztelaniara	Deialdiko 11.3 artikulua.
010-ITZ-2019	EREIN SA	Egunero hasten delako, gaztelaniara	Atzera egitea.
014-ITZ-2019	VAKXIKON PUBLICATIONS	Euskal poeta gazteen antologia, grezierara	Deialdiko 11.3 artikulua.
017-ITZ-2019	BANIZU NIZUKE KULTUR ANTOLAKUNTZA ETA DIFUSIO ELKARTEA	Leturiaren egunkari ezkutua, gaztelaniara	Deialdiko 11.3 artikulua.
019-ITZ-2019	POL.LEN EDICIONS	Egiari zor, gaztelaniara	Deialdiko 11.3 artikulua.
023-ITZ-2019	GODALL EDICIONS SL	Umeek gezurra esaten dutenetik eta beste batzuk, gaztelaniara	Deialdiko 11.3 artikulua.